


Zineskola
2019/03/27

ZARAFA

Ustiapen proposamena



Helburua:

Filma bat euskaraz ikusi eta ulertu

1) Filma ikusi aitzin:

Jarduera guzietan, hitzak eta egiturak lantzen ahal dira ahozkoan eta idatzian

- Afixaren azterketa egin:
 - **Testuaren elementu desberdinen behaketa egin:** idatziaren irakurketa, idazkeraren neurri eta kolore desberdinak, testuaren kokapena afixaren espazioan.
 - **Irudiaren deskribapena:** eszena, pertsonaiak, itxurak, jantziak, osagarriak (accessoires), jarrerak, ingurumena...
 - **Ikasleen hipotesiak bildu:** Zer pasatuko da filma honetan ?

Pertsonaia bakoitzaren **deskribapena** (ahozkoan edo/eta idatzian).

Ikasleen hipotesiak ahozkoan galdeginak badira ere, irakasleak proposamenak zerrendatzen eta sailkatzen ahal ditu: **hiztegia eta erranaldiak afixa batean idazten ahal dira.**

➤ Tituluaren azterketa




Hitz horrek zer erran nahi du ?
Zarafa = Jirafa arabiarrez

Protagonista inportanteena dela pentsatzen ahal da.

Ikasleei presentatzen delarik, afixa honen **elementuak gordeak izaten ahal dira**: pixkana erakusten ahal da, paper zatiekin parte batzuk gordeak izan baitira (post-it)

Afixa



➤ **Filmaren sinopsiaren** (laburpena) irakurketa.

Herriakako umeak baobab handiaren azpian elkartzen dira, lekuko agureak kontatzeko dituen istorioak entzutera. Bertan, 10 urteko Makiren eta Zarafa jirafa umezurtzaren arteko adiskidetasun sendoari buruz hitz egingo die, azken hori Egiptoko pashak Frantziako erregeari egingo dion opari bihurtu baino lehen. Hassan, desertuko printzeak, Zarafa Frantziara eramateko misio arriskutsua bete beharko du, baina Makik etxera bueltan ekartzen setatu da, nahiz eta horretarako bizia arriskatu behar izan. Sudanetik Pariserako bidaia luzean zehar, Alexandria, Marseilla eta elurrez estalitako Alpeetatik igaroko dira, arrisku izugarriei aurre eginez. Horrela, Makik eta Zarafak ikasiko dute elkarrekin mantenduz gero, dena gainditzeko gai izango direla.

Sinopsiaren ulermena: afixarekin parekatzen ahal da sinopsia hau

- Zarafa Frantziara eramateko misio arriskutsua bete beharko du = globoa
- Pertsonaien identifikazioa: nor da nor?
- Zer izanen dira protagonisten arteko harremanak?

➤ **Filma mota: Animazio filma**

Filmaren trailerra hemen:

<https://www.zineuskadi.eu/eu/pelikulak/zarafa/pe-210/>

Ikasleen hipotesiak baieztatzeko, sakontzeko, pertsonaien rolak ulertzeko, harremanak zein diren ikusteko.



Protagonistak



Oparia

Bere herrialde inbasio Turkiarengatik askatzeko Egiptoko pashak Frantziako erregeari laguntza eskatu nahi zion eta Zarafa erregeak baietza ematea ahalbidetuko zuen oparia zen.

- **Nola ulertarazi elementu garrantzitsu hori?**

Filmatik hartutako Pasha eta Hassanen arteko elkarrizketa entzun eta transkripzioa irakurri

[Dok: Audioa](#) [Transkripzioa](#)

2) Filma ikusi eta gero:

Jarduera guzietan, hitzak eta egiturak lantzen ahal dira ahozkoan eta idatzian.

- **Ikasleen iritziak** zerrendatzen ahal dira afixa batean. Konparaketa bat egiten da filma ikusi aitzin egin zituzten hipotesiekin.

Filmaren trailerra berriz erakusten ahal da.

Irakurketa/ Idatzia

- **Esaldi bat, testu bat idatzi:** iritzia emateko, istorioaren laburpena egiteko
- **Pertsonai nagusien deskribapena** idatzi, fisikoa eta psikologikoa
- **Pertsonaien arteko harremanak:** Filmaren eszena bat edo elkarrizketa bat hautatu, idatzi

Gaia sakontzeko:

- Egiazko gertakaria (historia)
- Kontakizunaren mailak
- Protagonistak [Dokumentua](#)
- Laguntasuna [Dokumentua](#)
- Bidaia (geografia)
 - Marrazkiak [Dokumentua](#)
 - Argazkiak [Dokumentua](#)
- Liburu baten inguruan: Afrika, jirafa, bidaia...
Bibliografia [Dokumentua](#)

Gaia sakontzeko - luzapenak:

- XIX. mendeko bizia (historia) [Dokumentua](#)
- Esklabotza (historia, EMC)
 - Tromeline: Esklabo ahortzien uhartea (Baionako Euskal Museoak sortu zituen dokumentuak, 2017an antolatu zuen erakusketaren kariatara.)
[Ikaslearen dokumentua](#)- [Irakaslearen dokumentua](#)
- Teknika (animazio filma)
 - Thaumatrope teknika: animazio filmetan erabiltzen den teknikaren arbasoa [Dokumentua](#)

Egiazko gertakaria

Méhémet Aliren eskaintza

“Zarafa” Méhémet Alik, Egiptoko errege ordainak, Karlos X Frantziako erregeari eskaini zion lepo-luzearen izena da. Frantziako lurraldean sartu den lehen lepo-luzea izan da. Gertakari honen aztarnetatik bat Jacques Raymond Brascassaten margolana dugu.



Le Passage de la girafe près d'Arnay-le-Duc, Jacques Raymond Brascassat, 1827.



Muséum national d'histoire naturelle

Kontakizunaren mailak



Esklabotza

Esklabotasuna edo **esklabotza** pertsona bat norbaiten jabetzapean atxikitzea da, gauza bat balitz bezala. Eta, hain zuzen ere, gauza bat balitz bezala, esklaboak erosi eta saldu egiten dira. Gaur egun, esklabotasuna mundu osoan debekatua da, baina, zoritxarrez, oraindik ere existitzen da leku batzuetan. (...)



Esklaboak ez du askatasunik, ezta eskubiderik ere. Jabeak nahi duena egin dezake esklaboarekin; gehienetan, lanerako erabiltzen dira, lansaririk ordaindu gabe, eta egoera txarretan. Historian, esklabotasuna biziki zabalduta egon da. (...) Europarrek Afrikako biztanle anitz esklabizatu zituzten indarrez, eta Ameriketara eraman zituzten, aberatsen lurretan lan egitera. Anitz hil ziren, bereziki ihes egiten saiatzen baziren. (...)